Hizkuntza Prestakuntzako berariazko oinarrizko ikastaroak prestatzea eta ematea kontratatzeko baldintza teknikoen plegua

1. Helburuak

AKPAren objetuaren definizioa: Euskal Administrazioetan euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza izan dadin, langileak trebatzeko hizkuntza prestakuntzako berariazko oinarrizko ikastaroak prestatzea eta ematea.

Berariazko ikastaroek herri-administrazioetako langileen euskara gaitasuna hobetzea dute helburu, beraien laneko eginkizunetan euskara izan dadin lan-hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza.

Euskararen erabilera planen testuinguruan kokatuko dira berariazko ikastaroak eta hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritako irizpideen ondorioz, administrazioan euskararen erabilera sustatzeko erabiliko dira.

2. Sortak

Ikastaro hauetako bakoitzaren helburua kontuan hartuta, sorta ezberdinak egingo dira kontratazio honetan.

1. sorta. Birziklatzeko ikastaroak.

Maila hauetan eskainiko dira:

a) ”A” maila birziklatzeko ikastaroak
b) B1 mailako birziklatze ikastaroak
c) B2 mailako birziklatze ikastaroak
d) C1 mailako birziklatze ikastaroak
e) C2 mailako birziklatze ikastaroak

2. sorta. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketak prestatzeko ikastaroak.

B1 mailako azterketa prestatzeko ikastaroak
B2 mailako azterketa prestatzeko ikastaroak
C1 mailako azterketa prestatzeko ikastaroak
C2 mailako azterketa prestatzeko ikastaroak

3. sorta. Testugintza ikastaroak.

Administrazioan erabiltzen diren mota anitzeko testu idatzien trebakuntza jorratzeko ikastaroak (mezu elektronikoak, iragarkiak, oharrak, baimenak…).

3. Ikastaroen ezaugarri nagusiak

a) Modalitatea

IVAPek zehaztuko du zein izango den ikastaroaren modalitatea, honako hauen artean:

- Aurrez aurrekoa.
- Lineakoa: plataforma baten bidezko tutoretza, foro eta ariketa gidatuak.
- Jardun biko ikastaroak: lineako prestakuntza eta aurrez aurreko edo bideokonferentzia sistema bidezko saioak.

Aurrez aurreko eta jardun biko ikastaroak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan emango dira.

Lineako eta jardun biko ikastaroen irakasleak honako eginkizunak betetzen ditu: ikasleak trebatzen ditu, plataformako esparrura ohitu daitezen; ikasleen progresioa behatzen du; informazioaren trukaketa eta eztabaidak gidatzen ditu; gela birtualeko tresnak eta baliabideak erabiltzen ditu, eta ikasleei erabiltzen irakasten die; plataforma gobernatzen du, eskaintzen dituen bitartekoei buruzko jarraibideak eskainiz; lanak nola bidali, dokumentuak nola argitaratu, zereginak nola berrikusi argi eta garbi jakinarazten du; denborak eta epeak antolatzen ditu; foroen irekiera/itxiera komunikatzen du; ebaluaziorako irizpideak azaltzen ditu; lanen gaineko feedback eraginkorra eskaintzen du; autoebaluazioa sustatzen du; ikasleak ebaluatzen ditu.

b) Ikastaroen eskaintza

IVAPek urte naturalarekin batera egiten du ikastaroen eskaintzaren plangintza. Horregatik, IVAPek abenduaren lehen hamabostaldian bidaliko die esleipendunei hurrengo urteko eskaintza orokorra, ikastaro bakoitza aurrez aurrekoa, lineakoa edo jardun bikoa den adieraziz.

Prestakuntza ekintzak, sortzen diren beharretara egokitu behar dira benetan eraginkor izateko, ezinbestekoa da urtez urte ikastaro batzuk IVAPen eskaintzatik baztertzea eta berri batzuk txertatzea, prestakuntzak dinamikoa izan behar baitu halabeharrez. Horretarako, urte bakoitza bukatu aurretik, alde batetik ikastaro guztien balorazioa aztertzen dugu eta bestetik beharren diagnosia, eta horien arabera prestatzen dugu hurrengo urteko eskaintza. Sortzen diren beharren arabera, xede bera duten (2. atalean sorta bakoitzerako zehaztutakoa) bestelako ikastaroak eskaintzeko aukera bere gain hartzen du IVAPek.

Ikastaroa hasi baino hamabost egun lehenago jakinaraziko dizkio IVAPek esleipendunari egingo diren ikastaro zehatzaren ezaugarriak, hala nola:

- Aurrez aurrekoa/lineakoa/jardun bikoa
- Tokia
- Eskola egunak
- Ordutegia

c) Lineako edukiek bete beharreko baldintza teknikoak

Ikastaroen edukiek jarraian zehazten diren ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte:

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

- Ikastaroetako edukiak Moodle 3.10.4 bertsiorako izango dira. Moodle-en hurrengo bertsio egonkorretara egingo diren migrazioak enpresa esleipendunari jakinaraziko zaizkio, gutxienez hiru hilabete lehenago.

- Beste bertsio batera migratzeko beharra badago, behar teknologikoak tarteko eta Eusko Jaurlaritzaren estandar teknologikoekin bat etorriz, IVAPek une horretara arte sisteman ostatu hartu duen edukien migrazioa egingo du, edukiak bertsio berriarekiko bateragarriak direla bermatzeko helburuarekin.

- Edukiak honako baliabide eta jarduera hauekin garatuko dira:
    - Baliabideak:
        - Etiketa
        - Fitxategia
        - IMS eduki paketea
        - Karpeta
        - Liburua
        - Orrialdea
        - Url-a

    - Jarduerak:
        - BigBlueButtonBN
        - Datu-basea
        - Egunkaria
        - Foroa
        - Galdetegia
        - Glosarioa
        - H5P
        - H5P Eduki Interaktiboa
        - Hausnarketa
        - Ikasgaia
        - Inkesta
        - Kanpoko tresna
        - Kontsulta
        - SCORM paketea
        - Tailerra
        - Txat-gela
        - Wikia
        - Zeregina
        - Zoom bilera

- Bideo/audio ezaugarriak.
    - Onartutako formatuak:
        - MOV.
        - MPEG4.
        - AVI.
        - WMV.
        - FLV.
        - 3GPP.
        - WebM.

- Bideoaren tamaina dela eta, ezin izango balitz Moodle-en bertan aterpetu, IVAPek ordezko bideo-ostatu kanal bat eskainiko dio enpresa esleipendunari. Enpresa esleipendunak ezin izango du, inola ere, bere kanal batean edo plataforma irekietan (Youtube, Vimeo …) aterpetu IVAPen berariazko baimenik gabe.

- Plugin-ak erabiltzea saihestuko da, baita bezero-ekipoan softwarerik jartzea ere. Bestela, enpresa esleipendunak arretarik gabe, automatikoki instalatzeko moduko paketeetan hornitu beharko ditu eta, honela, ikasleak ez du ekipoan administrazio-pribilegiorik behar izango; hartara, administrazio-pribilegiorik gabe eta informatikoen esku-hartzerik gabe egin ahal izango du instalazioa.

- Ezin izango da azken erabiltzaileen ekipoetan java bertsio espezifikoak instalatzeko eskaerarik egin, beste aplikazio korporatibo batzuen funtzionamendu egokia oztopatu baitezakete.

- Ez da beharrezkoa izango bezero-ekipoaren inolako osagairik aldatzea (adibidez, soinu-txartelak...), ezta nabigatzailea konfiguratzerakoan ere; izan ere, segurtasun-politikak direla eta, erabiltzaileek ezin dituzte ekintza horiek burutu.

- Nahitaezkoa izango da materialak prestakuntza egin aurretik probatzea, bai IVAPek, bai Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteko langileek (EJIE), Eusko Jaurlaritzaren politiketara egokitzen direla balioztatzeko. Hala ez bada, enpresa hornitzaileak bere materialetan behar diren aldaketak egin beharko ditu, zehaztutako politiketara egokitzeko.

- Sistemak tutoretza birtualak edo eskola birtualetara joateko baliabideak badauzka, bideokonferentzia-sistemak erabiltzen dituzten horietakoak, baliabide horien osagai guztiak zehaztuko dira. Osagai horiek ikastaroetako gainerako materialek dituzten ezaugarri tekniko berberak bete beharko dituzte, ezinbesteko baldintza izanik, prestakuntza egin aurretik, bai IVAPek, bai Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteko langileek (EJIE) egiaztatzea, Eusko Jaurlaritzaren politiketara egokitzen direla baliozkotzeko. Hala ez balitz, enpresa hornitzaileak behar diren ekintzak egin beharko ditu osagai horiei eta haien materialei dagokienez, zehaztutako politiketara egokitzeko.

d) <u>Bestelakoak</u>

Ikastaro guztien programazioak administrazioko estiloa eta terminologiaren lanketa barne hartuko ditu.

Ikastaro horiek kontuan hartu beharko dituzte, bai edukietan bai erabiliko diren metodologietan, administrazioko lanaren ezaugarriak eta administrazioko hizkeraren berezitasunak. Gainera, egoeraren arabera, baliteke IVAPek egokitzapenak eskatzea, batez ere, testu motan eta lexikoan; izan ere, administrazioko atal zehatz bati zuzendutako ikastaroa bada, esleipendunari eskatu ahalko zaio erabili beharreko ikasmaterialak taldearen lan-eginkizunei egokitutakoak izatea.

Halaber, ikastaro amaieran IVAPek sortutako inkesta bat emango zaie ikasle zein irakasleei ikastaroaren gogobetetzea neurtzeko.

IVAPek esleipendunei ikastaroen kudeaketa eta antolakuntzarekin lotutako jarraibideak edozein unetan eman ahal izango dizkie.

Genero berdintasunari dagokionez, honako baldintza hau bete behar da:

- Sexuaren aldagaia sistematikoki jaso beharko dute egiten dituzten estatistika, inkesta, datu-bilketa eta txosten guztietan. Ebaluazioan ere datuak beti sexuaren aldagaia kontuan hartuta jaso eta emango dira.
- Prestakuntza-jarduera ebaluatzeko ezartzen diren sistematik lortutako emaitzak sexuaren arabera aztertzea, neurri zuzentzaileak hartzea justifika dezaketen aldeak detektatzeko. Kontratua indarrean sartu eta sei hilabeterik behin bidali behako da txostena.

4. Sorta bakoitzaren ezaugarriak

A) 1. sorta. Birziklatzeko ikastaroak

A1) Aurreikusten den talde kopurua

2025: 18 talde
2026: 18 talde
2027: 9 talde

A2) Helburu orokorra
Behin euskalduntze prozesuaren mugara (bakoitzak berera) heldutakoan erabilera ezak erakarritako galera berreskuratzeko ikastaroak behar dituzte administrazioko langileek. Beren lanpostuko jarduerak euskaraz egiteko, ahoz zein idatziz, gaitasun falta izaten dute sarritan, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izanda ere; eta, ikastaro hauen bitartez hutsune hori bete eta lanean erabiltzeko moduko gaitasuna eta konfiantza lortzen dute.

A3) Ikastaroen ezaugarri zehatzak
Maila bakoitzean hiru eratara eskaini ahal izango dira aipatu ikastaroak: ahozko jarioa lantzeko birziklatze ikastaroak, idatziz aritzeko gaitasuna landuko dutenak eta birziklatze ikastaro orokorrak (idazteko gaitasuna eta ahozko jarioa jorratuko dituztenak).

”A” maila; birziklatzeko ikastaroak: langile asko dago inongo hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe ibiliak direnak euskara ikasten hasiera mailako urratsetan, horiek ere, sarritan behar izaten dute birziklatzea, izan ere, halako ikastaroek aukera ematen diete laneko atazarik errazenetan euskara erabiltzen hasteko (oharrak idatzi, mezu elektronikoak bidali, telefonoan euskaraz erantzun…).

A4) Iraupena eta erritmoa
Ikastaro bakoitzaren iraupena 20 ordukoa izango da. Ikastaroaren erritmoa, asteko 4 ordukoa izango da; ordu biko bi saiotan banatuta.

IVAPek, beharren arabera, ikastaro bakoitza emateko ordu kopurua aldatu ahal izango du. Halaber, egoerak hala eskatzen duenean, ikastaroa saio trinkoagotan ere antola daiteke.

A5) Gehienezko ikasle kopurua taldeko
Birziklatzeko edizio bakoitzean gehienez 15 ikaslek hartuko dute parte.

2. sorta. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketak prestatzeko ikastaroak

B1) Aurreikusten den talde kopurua

2025: 36 talde
2026: 36 talde
2027: 18 talde

B2) Helburu orokorra
Hizkuntza eskakizunen probarako trebatzea. Azterketa egiteko irizpideak jakinaraztea eta estrategia egokiak garatzen laguntzea. Baita azterketetan egiten diren ohiko akatsak azaltzea.

B3) Ikastaroen ezaugarri zehatzak
Maila bakoitzean hiru eratara antolatu ahal izango dira aipatu ikastaroak: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroak, idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroak eta ikastaro orokorrak (oro har, dagokion mailan egin beharreko azterketa guztiak jorratzeko).

B4) Iraupena eta erritmoa
Ikastaro hauek 10 - 15 ordu bitartekoak izango dira. Aurrez aurreko ikastaroen erritmoa astean bi egunetakoa izango da eta saio bakoitza 2 edo 3 ordutakoa.

IVAPek, beharren arabera, ikastaro bakoitza emateko ordu kopurua aldatu ahal izango du. Halaber, egoerak hala eskatzen duenean, ikastaroa saio trinkoagotan ere antola daiteke.

B5) Gehienezko ikasle kopurua
Sorta honetako edizio bakoitzean gehienez 15 ikaslek hartuko dute parte.

B6) Azterketa ereduen aldaketa
Kontratuak irauten duen bitartean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 19/2024 Dekretua indarrean jartzearen ondorioz hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketak aldatzen badira, esleipendunak ikastaroak eredu berrietara moldatu beharko ditu.

B) 3. Sorta. Testugintza ikastaroak

C1) Aurreikusten den talde kopurua

2025: 20 talde
2026: 20 talde
2027: 10 talde

C2) Helburu orokorra
Administrazioan sortzen diren estandarizatutako dokumentuak euskaraz idazteko teknikak eta irizpideak ezagutzea, administrazioko langileak kalitatezko testu zuzen eta argiak idazteko gai izan daitezen.

C3) Ikastaroaren ezaugarri zehatzak

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ikastaroek administrazioko testuen ekoizpenean jorratu behar diren arlo guztien gaineko prestakuntza doia eskainiko dute, idazketa-prozesua hasieratik bukaeraraino aztertuz. Administrazio-hizkeraren kalitatea zaintzeko helburuarekin, behar bezala egituratutako testu koherenteak ekoizteko estrategiak baliatuko dira, beste hizkuntzekiko morrontzatik aske, komunikazio-egoerari, estiloari eta erregistroari dagokienez egokiak izango diren ondo atondutako idazkiak sortu ahal izateko.

C4) Iraupena eta erritmoa
Testugintzako ikastaroek, oro har, 8-20 ordu artean iraungo dute. Dena dela, ikastaroaren ezaugarriak direla eta, ordu gehiago behar izanez gero, iraupena aipatutakoa baino luzeagoa izango da.
Iraupenak baldintzatuko du erritmoa. Esate baterako, lineako zortzi orduko ikastaroak bi astetan batuko dira, 20 ordukoak, berriz, 4 astetan.

C5) Gehienezko ikasle kopurua
Sorta honetako ikastaroetan gutxienez 6 ikaslek osatuko dute taldea eta gehienez ere 15ek.

Hiru sortetan adierazitako talde kopurua aurreikuspen hutsa da, ez du botere adjudikatzailea lotuko.